

# Klipa, erresistentziaren sinbolo okerra



VETERHEIM MUSEOA



LARS ROEDE

Ezkerrean, tropa alemaniarrek Osloko kaleetan, Bigarren Mundu Gerran. Eskuinean, kliparen omenezko monumentua Oslotik gertu, Sandvika hirian. Zazpi metroko klip erraldoia 1989an ipini zuten, Johan Vaalerren asmakizunaren 90. urteurrena ospatzeko. Baina klip hori ez zuten Vaalerrek asmatu.

OSLO (NORVEGIA), 1899. Johan Vaaler (1866-1910) asmatzaileak paperak biltzeko klip edo esteka moduko bat diseinatu zuen. Urte berean asmakizuna patentatzeko eskaera egin zuen Alemanian, eta geroxeago, AEBetan. Bi patenteak 1901. urtean eskuratu zituen.

Lau hamarkada geroago, Bigarren Mundu Gerra betean, Vaalerren jaioterrria alemaniarrek okupatuta zegoen. Gainerako herrialde okupatueta bezala, Norvegia ere nazien aurkako erresistentzia taldeak antolatzen hasi ziren. Talde garrantzitsuena Osloko Unibertsitateko ikasleek osatu zuten, eta klipa aukeratu zuten okupazioaren aurkako sinbolotzat. Batetik, atentzioa ematen ez zuen objektu txiki eta diskretua zen. Bestetik, esanahi sinbolikoa ere bazuen: klipak paperak batzen zituenez, norvegiarren batasuna adieraziko zuen. Eta gainera, klipa asmakizun norvegiarra zen; edo hala uste zuten behintzat.

Metalezko hari kiribilak arrakasta handia izan zuen ikur gisa, alemaniar okupatzaileak neurriak hartzera behartzeraino. Jakina, objektu ñimiñoak fisikoki ez zeukan inolako arriskurik. Baina naziak, propagandaren maisu izaki, ederki zekiten sinbolo txikienean ere nolako eragina izan zezaketen. Horregatik, klipak

erabiltzea debekatu zuten, heriotza zigorraren mehatxupean.

Gerra ostean klipa Norvegiako sinbolo nazional bihurtu zen, asmakizuna norvegiarra izan ez arren. Vaalerren esteka ez baitzen lehena izan. 1867an Samuel B. Fayk paperak batzeko metalezko hari tolestua patentatu zuen lehenengoz. Eta 1870eko hamarkadan, Gem Manufacturing enpresa britainiarra gaur egun oraindik erabiltzen den esteka ohikoena ekoizten hasi zen, nahiz eta patenterik sekula eskatu ez zuen. Norvegiar erresistentziako kideek soinean eraman ohi zuten klipa Gem-ena zen, ez Vaalerrena.

Kliparen sortzaile titulua lortzeko berandu iristeaz gain, Vaalerren diseinuak huts nabarmenak zituen. Gem kliparen tolestura biribilduen ordeztu zuen hariak; horrek paperak batzea oztopatzen zuen. Gainera, Gem klipetan bi muturrak gora begira daude, baina norvegiarrak bakoitza noranzko batean ipini zuten, eta hala, klipa batera edo bestera erabili, papera urratzeko arriskua handiagoa zen. Vaalerren asmakizuna ez zen batere saldu, eta patenteak iraungitzean ez zituen berritu. ■



## Arrastoak Ponpeiarren dieta aberatsa (eta bitxia)

CINCINNATIKO (AEB) Unibertsitateko arkeologo talde batek orain arte zertutu gabeko Ponpeia ere eremu bat induskatu berri du, Porta Stabia inguruan. Hogeita bat saltokik osatzen dute eremua. Denda horietako gehienek janaria eta edaria saltzen zuten, eta sukaldeetako, zaborretako zein irazkinteko arrasto mineralizatuak aztertuz, Vesubiok eztanda egin zuenean ponpeiarrek zer jaten zuten ondorioztatu ahal izan dute arkeologoen.

Eliteek Italiar penintsulaz kanpotik inportatutako luxuzko produktuak kontsumitzeko aukera zuten: itsaskiak, espeziak... baita jirafa haragia ere.

Baina bitxikeriak bitxikeria, herritar xehean dietak harritu ditu gehien ikerlariak. Zerealak, fruta, intxaurrak, olibak, dilistak, arraina... Dieta anitza eta osasungarria zuten. Cincinnati Unibertsitateko Steven Ellisen esanetan, "Erromatar Inperioko herri xeheaz orain arte izan dugun irudia aldatu behar dugu. Ez ziren ahi plater batengatik mokoka aritzen ziren koitaduak; Ponpeia herriarrek behintzat pentsatu baino bizi maila hobea zuten". ■



PAUL VLAAR